

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

|        |            |                 |                                      |                                  |     |
|--------|------------|-----------------|--------------------------------------|----------------------------------|-----|
| Araua: | 2006/23/EE | ZUZENTARAUA,    | EUROPAKO                             | PARLAMENTUARENA                  | ETA |
|        |            | KONTSEILUARENA, | aire-zirkulazioko kontrolatzailearen | Erkidegoko lizentziari buruzkoa. |     |

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Directiva 2006/23/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 5 de abril de 2006, relativa a la licencia comunitaria de controlador de tránsito aéreo (Texto pertinente a efectos del EEE)*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 64 de 4/3/2006*)

**2006/23/EE ZUZENTARUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2006ko apirilaren 5koa**

**aire-zirkulazioko kontrolatzaileen Erkidegoko lizentziari buruzkoa**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako erkidegoa eratzeko tratatua eta, bereziki, haren 80. artikulua 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>,

Kontsulta egin diote alde zuzenetik Eskualdeetako Komiteari,

Tratatua 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki <sup>(2)</sup>,

Honako hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Europako zeru bakarri buruzko legeria aplikatzeko, nahitaezkoa da araudi zehatzago bat jartzea, batez ere, aire-zirkulazioko kontrolatzaileen lizentziak emateari dagokionez, era horretan, erantzukizun eta gaitasuneko maila gorenak bermatu ahal izango baitira, aire-zirkulazioko kontrolatzaileen prestasuna hobetu ahal izango baita, eta lizentzien elkarrekiko aintzatespena sustatuko baita, betiere, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko martxoaren 10ean onartu zuten 550/2004 (EE) Erregelamenduak 5. artikuluan ezarritakoa betez, erregelamendu hori Europako zeru bakarri aire-nabigazioko zerbitzuak egiteari buruzko baita<sup>(3)</sup>. Horrez gain, eta aldi berean, aire-zirkulazioko segurtasuna eta langileen gaitasuna oro har hobetu ahal izango dira.

(2) Erkidegoko lizentzia bat sortuz, langile horiek aire-zirkulazioa kontrolatzeko segurtasuneko baldintzak bermatuta egiten duten lan berezia

<sup>1</sup> 234 EO C, 2005-09-22, 17. or.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2005eko martxoaren 8koa (EO C 320 E, 2005-12-15koa, 50. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2005eko azaroaren 14koa (EO C 316 E, 2005-12-13koa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2006ko otsailaren 15koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea).

<sup>3</sup> 96 EO L, 2004-03-31, 10. or

aintzatetsiko da. Era berean, gaikuntzari buruzko Erkidegoko arauak ezarri, arlo horretan dagoen zatiketa murriztuko da; eta, hartara, zereginak antolatzeke lana eraginkorragoa izango da, aire-nabigazioko zerbitzuen hornitzaileen arteko eskualdeko lankidetzari gero eta estuagoaren esparru horretan. Beraz, honako Zuzentarau hau Europako zeru bakarri buruzko legeriaren funtsezko osagaia da.

(3) Zuzentaraua da tresnarik egokiena gaitasun-arauak ezartzeko, aukera ematen baitie estatu kideei arau horiek lortzeko jarraitu behar diren prozedurak erabakitzeke.

(4) Komenigarria da zuzentarau hau indarrean dauden nazioarteko arauetan oinarritzea. Nazioarteko Abiazio Zibilaren Erakundeak (HEZINEK) hainbat xedapen eman ditu aire-zirkulazioko kontrolatzaileen lizentziei buruz, eta horien artean, besteak beste, hizkuntza-arloko baldintzak agertzen dira. Bestetik, Aire Nabigazioaren Segurtasunerako Europako Erakundeak –aire-nabigazioaren segurtasunerako lankidetzari buruzko 1960ko abenduaren 13ko nazioarteko Hitzarmenaren bidez sortu zenak– segurtasunerako arauko baldintzak ezarri ditu. 550/2004 (EE) Erregelamenduaren 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, Zuzentarau honek barne hartu ditu aire-zirkulazioko kontrolatzaileengan eragina duten Eurokontroleko 5. zenbakiko ESARR arauaren baldintzak.

(5) Erkidegoko aire-zirkulazioaren bereizgarriak ikusita, behar-beharrezkoa da Erkidegoko gaitasun-arauak sartzeko eta eraginkortasunez aplikatzea, gehienbat aire-zirkulazio orokorrari lotuta dauden aire-nabigazioko zerbitzuetako hornitzaileek enplegatzen dituzten aire-zirkulazioko kontrolatzaileei. Era berean, estatu kideek Zuzentarau honen ondoriozko nazio-xedapenak aplikatu ahal izango dizkiete, batetik, aire-zirkulazioko ikasle kontrolatzaileei, eta, bestetik, beren zerbitzuak aire-zirkulazio orokorretik kanpoko aireontzi-mugimenduetan eskaintzen dituzten aire-nabigazioko zerbitzuetako hornitzaileen ardurapean diharduten aire-zirkulazioko kontrolatzaileei.

(6) Estatu kideek neurriak hartzen badituzte Erkidegoko baldintzak bete daitezela bermatze aldera, hori behar bezala bete den

gainbegiratzeko ardura duten agintariak aski independenteak izan beharko dute, aire-nabigazioko zerbitzuetako hornitzaileen eta trebakuntzako hornitzaileen mende egon gabe. Era berean, agintari horiek ondo prestatuta egon beharko dute, beren ardurapeko zereginak eraginkortasun osoz bete ahal izateko. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko martxoaren 10ean onetsi zuten 549/2004 Erregelamenduak –Europako zero bakarria sortzeko esparrua finkatzen duenak– 4. artikuluan <sup>(1)</sup> izendatu edo sortutako organoak zuzentarau honi jarraiki izendatutako edo sortutako gainbegiratze-arloko agintari nazionalak izan daitezke.

- (7) Aire-nabigazioko zerbitzuak egiteko, goi-trebakuntza duten langileak behar dira, eta langile horien gaitasuna modu askotara froga daiteke. Aire-zirkulazioaren kontrolaren esparruan, biderik egokiena Erkidegoko lizentzia bat sortzea da; hori diploma moduko agiri bat izango da, eta aire-zirkulazioko kontrolatzaile bakoitza izango da haren titularra. Lizentzia bati lotutako gaikuntzak zehatz azaltzen du zein motatako zerbitzuak egiteko dagoen baimenduta aire-zirkulazioko kontrolatzailea. Era berean, lizentzian jasotako oharpenek ondo egiaztatzen dituzte, hala kontrolatzaileak dituen gaitasun bereziak, nola gainbegiratzeko ardura duten agintariak sektore jakin batean edo sektore-multzotako batean zerbitzu egiteko kontrolatzaileari eman dioten baimena. Horregatik, agintariak ondo prestatuta egon behar dute, aire-zirkulazioko kontrolatzaileen gaitasuna balioesteko moduan, bai lizentziak ematerakoan, bai eta oharpenen balio-epaia luzatzerakoan ere. Era berean, agintariak behar adinako gaitasuna izan behar dute lizentziak, gaikuntzak edo oharpenak indargabetzeko, gaitasunaren inguruan zalantzak pizten direnean. Gertakariei buruzko informazioa sustatze aldera (ekitatezko kultura), Zuzentarau honek ez du lotura automatikorik egin behar gertakari baten eta lizentzia, gaikuntza edo oharpena indargabetzeko prozesuaren artean. Lizentzia kentzea azken baliabidea izango da, mutur-muturreko kasuetan bakarrik erabiltzekoa.
- (8) Estatu kideek lizentziak emateko sistemei dagokienez elkarrekiko duten konfiantza sendotze aldera, nahitaezkoa da Erkidegoko araudi bat sortzea agiri horiek lortzeko eta mantentzeko moduari buruz. Hala, bada, segurtasun-mailarik altuena bermatu ahal izateko, ezinbestekoa da aire-zirkulazioko kontrolatzailearen lanbideari dagozkion trebakuntza-, gaitasun- eta sarrera-baldintzak ondo orekatzea. Hori orekatuta, aire-zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzu segurua eta kalitate handikoa eman ahal izango da, eta lizentziak Erkidegoan aintzatetsita egongo dira; beraz,

zirkulazio-askatasuna eta kontrolatzaileen prestasuna handitu egingo dira.

- (9) Estatu kideek ondo zaindu beharko dute Zuzentarau hau aplikatzean alde batera utzi ez daitezkeen indarrean dauden xedapen nazionalak, horietatik arautzen baitituzte enplegu-emailearen eta aire-zirkulazioko kontrolatzaile izan nahi duten hautagaien arteko lan-harremanei aplikatu ahal zaizkien eskubideak eta betebeharrak.
- (10) Gaitasunak Erkidego osoan antzekoak izan daitezkeen, argi egituratu behar dira eta egitura horrek onarpen zabala izan behar du. Hori lagungarria izango da, batetik, aire-nabigazioko zerbitzuen hornitzaile jakin batek kontrolatzen duen aire-espazioaren segurtasuna hobetzeko, eta, bestetik, eta bereziki, zerbitzuetako hainbat hornitzailearen arteko loturan segurtasuna bermatzeko.
- (11) Gertakari eta istripu askotan, komunikazioa faktore guztiz erabakigarria izaten da, eta, hori dela-eta, HEZINEk (Hegazkineria Zibilaren Nazioarteko Erakundeak) hainbat baldintza ezarri ditu hizkuntzak jakiteari dagokionez. Zuzentarau honek baldintza horiek garatzen ditu eta, hala, bidea ematen du nazioartean onartuta dauden arau horiek bete ahal izateko. Bereizkeriarik ezaren, gardentasunaren eta heinekotasunaren printzipioak bete beharko dira hizkuntzei buruzko baldintzetan, hartara, zirkulazio askea sustatzeko eta aldi berean segurtasuna bermatzeko.
- (12) Eurokontroleko kideek eskaturik prestatutako orientabideetan, hasierako trebakuntzako helburuak aipatzen dira, eta arau egokitzat jotzen dira. Unitateko trebakuntzari dagokionez, oro har, onartutako araurik ez dago, eta hori nolabait orekatzeko, neurrien aukera zabala eskaini behar da, besteak beste, gaitasun-arau zorrotz-zorrotzak bermatu behar dituzten aztertzaileak baimentzea. Hori guztiz garrantzitsua da, batez ere kontuan izanik unitateko trebakuntza oso garestia dela eta ezinbestekoa dela segurtasunari begira.
- (13) Eurokontroleko estatu kideek eskaturik, betekizun medikoak ezarri dira, eta Zuzentarau hau betetzeko modu onargarritzat jotzen dira.
- (14) Trebakuntzari buruzko ziurtagiria, segurtasunaren aldetik, oinarritzakoa izango da haren kalitatea lortzeko. Trebakuntza aire-nabigazioko zerbitzuen antzeko zerbitzu bat dela ulertu beharra dago, eta, hori dela-eta, ziurtatzeko prozesu bat egon behar du hor. Zuzentarau honek trebakuntza ziurtatzeko bidea egin behar du, trebakuntza-moten, trebakuntza-zerbitzuen multzoen edota aire-nabigazioko eta trebakuntza-zerbitzuen multzoen arabera, baina dituen bereizgarriak alde batera utzi gabe.

- (15) Zuzentarau honek Europako Erkidegoetako

<sup>1</sup> 96 EO L, 2004-03-31, 1. or

Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia luzea berresten du, bai batak bestearen diplomak aintzatesteari dagokionez, bai eta langileen zirkulazio askeari dagokionez ere. Heinekotasunaren printzipioa, konpentsazio-neurriak ezartzea arrazoiz justifikatzea, eta errekursoak aurkezteko prozedura egokiak jartzea dira aireko zirkulazioa kudeatzeko sektorean ahalik eta modurik agerikoenean aplikatu behar diren oinarrizko printzipioak. Estatu kideei ahalmena eman behar zaie zuzentarau honen arabera ematen ez diren lizentziak aintzat ez hartzeko; era berean, ahalmena eman behar zaie estatu kideei lizentziak onar ditzaten, baliokidetasunak behar bezala balioetsi ondoren. Zuzentarau honen helburua da lizentziak elkarri aintzatesteko prozedura erraztea, eta, beraz, ez ditu arautzen enplegua lortzeko baldintzak.

- (16) Aire-zirkulazioko kontrolatzailearen arloan berrikuntza teknikoak izaten dira, eta, horren ondorioz, gaitasunak aldiro-aldiro gaurkotu behar dira. Zuzentzarauak aukera eman behar du aurrerapen teknikora eta zientifikora egokitu ahal izateko, komiteak ezarritako prozeduraren bidez.
- (17) Zuzentarau honek eragina izan dezake aire-zirkulazioko kontrolatzaileen eguneroko lan-jardueretan, eta, beraz, informazio egokia eman eta ondo kontsultatu behar zaie gizarte-hizketakideei, 2006ko apirilaren 27an Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitara emandako L 114/23 Zuzentzarauaren ondorio diren neurri guztiei buruz. Hortaz, kontsultak egin zitzaizkion Batzordeak 1998ko maiatzaren 20an eman zuen 98/500/EE Erabakiak –Europa osoan gizarte-arloko hizketakideen arteko elkarriketa sustatzeko elkarriketa sektorialerako Komitea sortzeari buruzkoak– ezarritakoari jarraiki sortutako elkarriketa sektorialerako Komiteari<sup>(m)</sup>; eta, bestalde, kontsulta egin beharko zaio etorkizuneari Batzordeak hartuko dituen betearazpen-neurriei buruz.<sup>1</sup>
- (18) Estatu kideek zehaztu beharko dute Zuzentarau honen arabera ezarritako xedapen nazionalak bete ezean aplikatu beharreko zehapenen erregimena eta, era berean, behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte xedapen horiek betearazteko. Zehapen horiek eraginkorrak, tamainakoak eta disuasiokoak izan beharko dute.
- (19) Zuzentarau hau aplikatzeko behar diren neurriak Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiak –Batzordeari esleituriko betearazpen-eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituenak– adierazi duenaren arabera

onartu behar dira<sup>(2)</sup>.

- (20) Bi urteko epeari nahikoa irizten zaio legeri nazionalean sartzeko; horrenbestez, lizentziak emateko erkidegoko esparrua sortu, eta gaur egungo titularren lizentziak esparru horretan sartu ahal izango dira, hala ezarrita baitago oharpenen indarraldiari eta gaikuntzei eusteko baldintzen xedapenetan, xedapen horietan ezarrita dauden baldintzak bat baitatoz nazioartean dauden betebeharrekin. Horrez gain, bi urteko denboraldi gehigarria eman behar da hizkuntza-eskakizun guztiak aplikatu ahal izateko modua legeria nazionalean barneratu ahal izateko.
- (21) Adinari, hezkuntza-eskakizunei eta lizentzia bat eskuratzeko hasierako trebakuntzari buruzko baldintza orokorrek ez dute ondorioz izan behar lizentzien oraingo titularrengan.
- (22) Instituzioen arteko «Lege hobeak egitea» izeneko Akordioak 34. puntuan ezarritakoaren arabera<sup>(3)</sup>, estatu kideek beren taulak ezarri behar dituzte –beren interesa eta Erkidegoarena hobeto babesteko–, eta taula horiek ahal den neurrian erakutsi behar dute Zuzentzarauaren eta estatuko zuzenbidera sartzeko neurrien artean dagoen bat-etortzea; taulok, gainera, argitara eman behar dira.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

### *1. artikulua*

#### **Xedea eta aplikazio-eremua**

1. Zuzentarau honen helburua da aireko zirkulazioa kontrolatzeko erkidegoko sistemaren segurtasuna areagotzea eta, era berean, egiten diren eragiketak hobetzea; horretarako, erkidegoko lizentzia bat ezarri nahi da aireko zirkulazioko kontrolatzaileentzat.
2. Zuzentarau hau honako hauei aplikatu ahal izango zaie:
  - aire-zirkulazioko ikasle kontrolatzaileei, eta
  - aire-zirkulazioko kontrolatzaileei,betiere, gehienbat, aire-zirkulazio orokorreko aireontzien mugimenduetarako zerbitzuak eskaintzen dituzten aire-nabigazioko zerbitzuen hornitzaileen ardurapean betetzen badituzte dagozkien zereginak .
3. 549/2004 (EE) Erregelamenduaren 1. artikuluko 2. paragrafoa eta 13. artikulua errespetatuz, aire-zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzu erregular eta

<sup>1</sup> EO L 225 1998-08-12, 27. or. 2003ko Atxikitze Aktak aldatu zuen Zuzentzaraua.

<sup>2</sup> 184 EO L, 1999-07-17, 23. or

<sup>3</sup> 321 EO C, 2003-12-31, 1. or.

planifikatuak aire-zirkulazio orokorrean ematen badira eta zerbitzu horiek ematearen ardura duten aire-nabigazioko zerbitzuen hornitzaileek beren zerbitzuak batez ere aire-zirkulazio orokorraz bestelako aireontzi-mugimenduetan ematen badituzte, estatu kideek behar bezala bermatuko dute aire-zirkulazio orokorreko zerbitzuen segurtasuna eta kalitatea zuzentarau honetako xedapenak aplikatuz lortzen direnen parekoak izango direla, gutxienez.

## 2. artikulua

### Definizioak

Zuzentarau honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

- 1) «aire-zirkulazioko kontrol-zerbitzua»: zerbitzu hau ematen da aireontzien arteko edota, maniobren esparruan, aireontzien eta oztopen arteko talkarik egon ez dadin eta, era berean, aireko zirkulazioaren joan-etorria ondo antolatuta izateko eta azkartzeko;
- 2) «aire-nabigazioko zerbitzuen hornitzailea»: aire-zirkulazio orokorrean aire-nabigazioko zerbitzuak ematen dituzten erakunde publikoak edo pribatuak;
- 3) «aire-zirkulazio orokorra»: aireontzi zibilen mugimendu guztiak eta, era berean, estatuko aireontzien mugimendu guztiak (aireontzi militarrek, aduanetakoak eta poliziakoak barne hartuta), betiere, mugimendu horiek HEZINEren prozeduren arabera betetzen badira;
- 4) «lizentzia»: duten izena dena dela, Zuzentarau honi jarraiki ematen eta jasotzen diren eta, orobat, legezko titularrari aire-zirkulazioko kontrol-zerbitzuak egiteko ahalmena ematen dioten ziurtagiri guztiak, betiere, dituzten oharpenak eta gaikuntzak kontuan izanda;
- 5) «gaikuntza»: lizentzia bati lotutako edo haren barnean sartutako baimena, lizentziaren beraren parte dena eta lizentziari buruzko baldintza bereziak, eskumenak edo murriztapenak jasotzen dituen; lizentziaren gaikuntzak honako hauek izango dira, gutxienez:
  - a) aerodromoaren ikusmeneko kontrola;
  - b) aerodromoaren tresna-bidezko kontrola;
  - c) prozeduren bidezko hurbiltze-kontrola;
  - d) hurbilpeneko zaintza-kontrola;
  - e) arloaren kontrola;
  - f) arloaren zaintza-kontrola;
- 6) «gaikuntzaren oharpena»: lizentzia bati lotutako baimena, lizentziaren beraren parte dena, eta lizentziari buruzko baldintza bereziak, eskumenak edo dagokion gaikuntzari buruzko murriztapenak jasotzen dituen;
- 7) «unitatearen oharpena»: Dagokion lizentzian sartutako baimen honetan aditza ematen da HEZINEren lekuaren adierazlea eta lizentziaren titularraren lan egiteko eskumenekoak diren lanpostuak eta/edo sektoreak;
- 8) «hizkuntzaren oharpena»: lizentzia bati lotutako baimena, lizentziaren beraren parte dena, eta titularraren hizkuntza-gaitasunaren maila jasotzen duena;
- 9) «irakaslearen oharpena»: Dagokion lizentziari gehitutako baimen honek egiaztatzen du titularra gai dela dagokion lanpostuan trebakuntzan jarduteko;
- 10) «HEZINE tokiaren adierazlea»: lau letrez osatutako kode hau HEZINEk 7910 DOC gidaliburuan emandako xedapenen arabera eratu da, eta estazio aeronautiko finkoa dagoen tokiari esleituta dago;
- 11) «sektorea»: hegaldiko informaziorako eskualde edo goi-eskualde baten zatia edota kontrol-arlo baten zatia;
- 12) «trebakuntza»: Aire-zirkulazioko kontrol-zerbitzu seguruak eta kalitate handikoak egiteko behar diren gaitasunak eskuratzeko eta gaitasun horiei eusteko eskatzen diren ikastaro teorikoak eta ariketa praktikoak, simulaziokoak eta lanpostuko trebakuntzakoak barne hartuta. Trebakuntza honako hau da:
  - a) hasierako trebakuntza, hau da, ikasle kontrolatzaileari lizentzia eman ahal izateko behar den oinarriko trebakuntza eta gaikuntza eskuratzeko behar dena.
  - b) unitateko trebakuntza, hau da, lanpostuko trebakuntza jaso aurretik dagoen trantsizioko trebakuntza eta aire-zirkulazioko kontrolatzailearen lizentzia eskuratzeko eduki behar den lanpostuko trebakuntza biltzen dituen;
  - c) etengabeko trebakuntza, hau da, lizentziako oharpenen balioari eutsi ahal izateko behar dena;
  - d) lanpostuko irakaslearen trebakuntza, alegia, irakaslearen gaikuntza eskuratzeko eduki beharrekoa;
  - e) aztertzaileen edo/eta ebaluatzaileen trebakuntza;
- 13) «trebakuntzako hornitzailea»: Trebakuntza-mota bat edo batzuk emateko eskumena duen gainbegiratze-arloko agintari nazionalak onartutako erakundea;

- 14) «unitateko gaikuntza-plana»: onetsitako plan honetan aditzera ematen da unitateak zein metodo erabili behar duen unitatea bera osatzen duten lizentzia-titular guztien gaikuntzari eusteko;
- 15) «unitateko trebakuntza-plana»: onetsitako plan honetan zehatz jasota daude lanpostuko trebakuntzako irakasle baten gainbegiradapean arlo jakin batean unitateko prozedurak aplikatzeko behar diren prozedurak eta egutegia.

### 3. artikulua

#### **Gainbegiratze-arloko agintari nazionalak**

1. Estatu kideek organo bat edo batzuk izendatu edo sortuko dituzte, gainbegiratze-arloko agintari nazional izan daitezen, eta horiek Zuzentarau honen bidez agintari horiei esleitzen zaizkien zereginak bete beharko dituzte.

2. Gainbegiratze-arloko agintari nazionalak independenteak izango dira aire-nabigazioko zerbitzuen hornitzaileekiko, eta trebakuntzako hornitzaileekiko. Independentzia hori lortzeko, behar bezala bereizi beharko dira, gutxienez funtzio-arloan, gainbegiratze-arloko agintari nazionalak eta hornitzaile horiek. Estatu kideek ondo zainduko dute gainbegiratze-arloko agintari nazionalak inpartzialtasunez eta gardentasunez joka dezaten dagozkien eskumenak erabiltzerakoan.

3. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote gainbegiratze-arloko agintari nazionalen izenak eta helbideak, eta, orobat, 2. paragrafoan xedatutakoa beteko dela bermatzeko hartu beharreko gainerako neurrien berri emango diote.

### 4. artikulua

#### **Lizentziak emateko prozedura arautzeko printzipioak**

1. Lehenengo artikularen 3. paragrafoan ezarritakoa errespetatuz, estatu kideek ondo bermatuko dute aire-zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzuak zuzentarau honi jarraiki lizentzia baten titular diren aire-zirkulazioko kontrolatzaileek baizik ez dituztela emango, 1. artikularen 2. paragrafoan adierazitako moduan.

2. Lizentzia baten eskatzaileak ondo egiaztatu beharko du aire-zirkulazioko kontrolatzailearen edo aire-zirkulazioko ikasle kontrolatzailearen zereginak betetzeko gai dela. Gaitasun-proba horiek ezagutzei, esperientziari, trebetasunei eta hizkuntza-gaitasunari buruzkoak izango dira.

3. Lizentziaren jabe titularra izango da, eta berak sinatu beharko du.

4. Hamalagarren artikularen 1. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorrira:

- a) lizentzia, haren gaikuntzak eta oharpenak etenda

utzi ahal izango dira zalantzak baldin badaude aire-zirkulazioko kontrolatzailearen gaitasunari buruz edota kontrolatzaile horrek behar ez den jokaeraren bat erakutsi badu;

- b) zabarkeria larria edo gehiegikeriaren bat eginez gero, lizentzia kendu ahal izango da.

5. Aire-zirkulazioko ikasle kontrolatzaile baten lizentziak baimena emango dio titularrari aire-zirkulazioko kontrol-zerbitzuak egiteko lanpostuko trebakuntzako irakasle batek gainbegiratuta.

6. Lizentziak I. Eranskinean zerrendatuta dauden osagaiak hartuko ditu barne.

7. Lizentzia ingelesa ez den beste hizkuntza batean ematen denean, lizentziarekin batera, I. Eranskinean zerrendatuta dauden atalen ingeleseko itzulpena gaineratu beharko da.

8. Estatu kideek ziurtatu egin behar dute aire-zirkulazioko kontrolatzaileek behar bezalako prestakuntza dutela segurtasunaren, babesaren eta krisien kudeaketaren esparruetan.

### 5. artikulua

#### **Lizentzia lortzeko baldintzak**

1. Aire-zirkulazioko ikasle kontrolatzailearen lizentzia lortzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Hemezortzi urte beteta izatea, eta bigarren hezkuntzako titulua, unibertsitatera sartzeko aukera ematen duen titulua edo titulu baliokideren bat edukitzea.

Estatu kideek erabaki ahal izango dute gainbegiratze-arloko agintari nazionalari agintzea hezkuntza-arloko baldintza hori betetzen ez duten hautagaien trebakuntza-maila ondo azter dezala. Ebaluazioa egin ondoren, erabakitzen baldin bada hautagaiak duen esperientzia eta trebakuntza egokiak direla eta, beraz, aukera ugari dituela aire-zirkulazioko kontrolatzailearen trebakuntza-maila gaunditzeko, ondorio horiek aski direla joko da;

- b) II. Eranskinak A zatian ezarritakoari jarraiki, gaikuntza eta gaikuntzaren oharpena eskuratzeko hasierako trebakuntza gaundituta izatea;

- c) Mediku-ziurtagiri baliadun bat edukitzea, eta

- d) III. Eranskinean agertzen diren baldintzei jarraiki, hizkuntza-eskakizunaren maila egokia duela egiaztatzea.

Lizentziak gaikuntza bat izan behar du gutxienez, baita gaikuntza-oharpen bat, hala badagokio.

2. Aire-zirkulazioko kontrolatzailearen lizentzia lortzeko, baldintza hauek bete behar dira:

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- a) 21 urte beteta izatea. Dena dela, estatu kideek adin-muga txikiagoa ezarri ahal izango dute behar bezala justifikatutako kasuetan.
- b) ikasle kontrolatzailearen lizentziaren titular izatea, unitate-trebakuntzako plan bat bukatu eta gaudituta izatea eta dagozkion azterketa edo ebaluazioak gaudituta izana II. eranskinen B zatian agertzen diren eskakizunen arabera.
- c) Mediku-ziurtagiri baliodun bat edukitzea, eta
- d) III. Eranskinen agertzen diren baldintzei jarraiki, hizkuntza-eskakizunaren maila egokia duela egiaztatzea.

Lizentzia baliozkotzeko, gaikuntza bat edo batzuk sartu beharko dira, bai eta dagozkien gaikuntza-oharpenak, eta gauditako trebakuntzari dagozkion unitatea eta hizkuntza ere.

3. Aire-zirkulazioko kontrolatzailearen lizentzien titularrei baldintza hauek eskatuko zaizkie irakasle-oharpena jaso ahal izateko:

- a) Aire-zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzuak egin izana juxtu aurreko denboraldian eta gutxienez urtebetez, edo gainbegiratze-arloko agintari nazionalak ezarritako denbora gauditzen duen aldian, betiere, irakaskuntzari dagozkion gaikuntza eta oharpenak aintzat hartuta,
- b) Bukatuta eta gaudituta izatea lanpostuko irakaslearen ikastaro bat, eta ikastaroa egin bitartean azterketa egokiak egin izana eskatzen diren ezagutza eta kualifikazio pedagogikoak ebaluatzeko.

### *6. artikulua*

#### **Aire-zirkulazioko kontrolatzaileen gaikuntzak**

Lizentziek ondoko gaikuntzetako bat edo batzuk edukiko dituzte, hartara, ondo adierazi ahal izateko titularra zein zerbitzu-mota egiteko baimenduta dagoen:

- a) aerodromoaren ikusizko kontrolaren gaikuntza (ADV): honek aditzera emango du, lizentziaren titularra gai dela aerodromoko zirkulazioaren kontrol-zerbitzua egiteko, tresna bidez irteteko edo hurbiltzeko prozedurarik argitaratuta ez duen aerodromo batean;
- b) aerodromoaren kontrolaren gaikuntza tresnen bidez (ADI); honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela aerodromoko zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzua egiteko, betiere, aerodromoak tresna bidez irteteko edo hurbiltzeko prozedurak argitaraturik baditu eta, gutxienez, 7. artikuluen 1. paragrafoan jasotako oharpenen bat badu;
- c) aerodromoaren kontrolaren gaikuntza prozeduren bidez (APP); honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela aerodromoko

zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzua egiteko, iristen edo irteten diren edota zirkulazioan dauden aireontziekin, zaintzako ekipamendurik erabili gabe;

- d) aerodromoaren kontrolaren gaikuntza tresnen bidez (ADI); honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela aerodromoko zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzua egiteko, betiere, aerodromoak tresna bidez irteteko edo hurbiltzeko prozedurak argitaraturik baditu eta, gutxienez, 7. artikuluen 2. paragrafoan jasotako oharpenen bat badu;
- e) esparru-kontrolaren gaikuntza (ACP); honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela aire-zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzua emateko aireontziei, zaintza-ekipamendurik baliatu gabe;
- f) aire-zaintzaren kontrolaren gaikuntza (ACS); honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela aire-zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzua emateko aireontziei zaintza-ekipamendurik baliatuz, eta, gutxienez, 7. artikuluen 3. paragrafoan jasotako oharpenen bat badu;

### *7. artikulua*

#### **Gaikuntza-oharpenak**

1. Aerodromoko tresnen bidezko kontrolaren gaikuntzan (ADI), ondoko oharpen hauetako bat jaso beharko da gutxienez:

- a) kontrol-dorreko oharpena (TWR); honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela kontrolatzeko zerbitzuak emateko, aerodromoaren kontrola lanpostu batetik egiten denean;
- b) lurreko mugimenduen kontroleko oharpena (GMC); honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela kontrol hori egiteko;
- c) lurreko mugimenduak zaintzeko oharpena (GMS), lurreko mugimenduak kontrolatzeko oharpenaren edo kontrol-dorrearen oharpenaren osagarri gisa emango dena; honek adieraziko du titularra gai dela mugimendu horiek kontrolatzeko, betiere, azaleran mugimenduetarako sistema gidarien laguntza izanda;
- d) aireko kontrolaren oharpena (AIR); honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela kontrol hori egiteko;
- e) aerodromoko radarra kontrolatzeko oharpena (RAD), aireko kontrolaren oharpenaren edo kontrol-dorrearen oharpenaren osagarri gisa emango dena; honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela aerodromoa kontrolatzeko, zaintzako radar-ekipamenduen laguntza izanda.

2. Hurbilpeneko zaintza-kontrolaren gaikuntzak

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(APS), gutxienez, honako oharpen hauetako bat hartuko du barne:

- a) radarraren oharpena (RAD); honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela hurbilpeneko kontrol-zerbitzua emateko, lehen edo bigarren mailako radar-ekipamenduak erabiliz;
- b) hurbilpenerako doikuntzako radarraren oharpena (PAR), radarraren oharpenaren osagarri gisa emango dena; honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela doitasun-hurbilpenak egiteko lurretik, doikuntzako radar-ekipamenduak erabiliz, pistara hurbiltzeko azken fasean;
- c) hurbilpenerako zaintzako radarraren oharpena (SRA), radarraren oharpenaren osagarri gisa emango dena; honek adieraziko du lizentziaren titularra gai dela doitasun-hurbilpenak egiteko lurretik, zaintza-ekipamenduak erabiliz, pistara hurbiltzeko azken fasean;
- d) Mendeko zaintza automatikoaren oharpena (ADS); honek adieraziko du titularra gai dela hurbilpena kontrolatzeko zerbitzua emateko, mendeko zaintza automatikoko sistemak baliatuz;
- e) terminalaren kontrolaren oharpena (TCL), radarren oharpenaren edo mendeko zaintza automatikoaren oharpenaren osagarri gisa emango dena; honek adieraziko du titularra gai dela aire-zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzuak emateko, zaintzarako edozein ekipamendu baliatuz, betiere, arlo terminal jakin batean eta/edo aldameneko sektoreetan aritzen diren aireontzietarako badira.

3. Arloaren zaintza-kontrolaren gaikuntzak (ACS), gutxienez, ondoko oharpen hauetako bat hartuko du barne:

- a) radarraren oharpena (RAD); honek adieraziko du titularra gai dela arloa kontrolatzeko zerbitzuak emateko, zaintzako radar-ekipoak erabiliz;
- b) Mendeko zaintza automatikoaren oharpena (ADS); honek adieraziko du titularra gai dela arloa kontrolatzeko zerbitzuak emateko, mendeko zaintza automatikoko ekipoak erabiliz;
- c) terminalaren kontrolaren oharpena (TCL), radarraren oharpenen edo mendeko zaintza automatikoaren oharpenen osagarri gisa emango dena; honek adieraziko du titularra gai dela aire-zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzuak emateko, zaintzako edozein ekipamendu erabiliz, betiere, arlo terminal jakin batean eta/edo aldameneko sektoreetan aritzen diren aireontzietarako badira;
- d) Kontrol ozeanikoaren oharpena (OCN); honek adieraziko du titularra gai dela aire-zirkulazioa kontrolatzeko zerbitzuak emateko, kontrol ozeanikoko arlo batean aritzen diren aireontziei;

4. Lehen, bigarren eta hirugarren paragrafoetan ezarrita dagoena errespetatuz, estatu kideek oharpen nazionalak finkatu ahal izango dituzte salbuespeneko kasu bakan batzuetan, alegia, beren erantzukizuneko aire-espazioan dauden zirkulazioko ezaugarri bereziak aintzat hartuta hala behar denean. Alabaina, ohar horiek ez dute eraginik izango aire-zirkulazioko kontrolatzaileek mugitzeko duten askatasun erabatekoan.

### *8. artikulua*

#### **Hizkuntza-oharpenak**

1. Estatu kideek ondo bermatu beharko dute aire-zirkulazioko kontrolatzaileak gai direla behar bezala frogatzeko ingelesez ondo hitz egiten eta ulertzen dutela. Interesdunen hizkuntza-gaitasuna neurtzeko, III. Eranskinean agertzen den sailkatze-eskala erabiliko da.

2. Estatu kideek tokiko hizkuntzari buruzko eskakizunak ezarri ahal izango dituzte, segurtasuna dela-eta beharrezkoa dela jotzen badute.

3. Lehen eta bigarren paragrafoak aplikatzeko eskatuko den maila III. Eranskinean agertzen den hizkuntza-gaitasunaren sailkapen-eskalako 4. maila izango da.

4. Hirugarren paragrafoan xedatutakoa gorabehera, estatu kideek III. Eranskineko sailkapen-eskalako hizkuntza-gaitasunaren 5. maila eskatu ahal izango dute, 1. eta 2. paragrafoak aplikatzeko, betiere, gaikuntza edo oharpen zehatz baten inguruabar operatiboak direla-eta maila altuagoa behar bada segurtasuna bermatze aldera. Eskakizun hori era objektiboan justifikatuko da, ez du bereizkeriarik eragingo eta egokia eta gardena izango da.

5. Hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko, ziurtagiri bat emango da, gainbegiratze-arloko agintari nazionalak onetsi duen ebaluatzeko prozedura gardena eta objektiboa gainditu ondoren.

### *9. artikulua*

#### **Irakasle-oharpenak**

Irakasle-oharpenak adieraziko du lizentziaren titularra gai dela lanpostu bateko trebakuntza- eta gainbegiratze-lanak egiteko, indarrean dagoen gaikuntza batek betetzen dituen arloko lanpostu batean.

### *10. artikulua*

#### **Unitate-oharpenak**

Unitate-oharpenak adieraziko du lizentziaren titularra gai dela aire-zirkulazioko zerbitzuak emateko sektore baterako, sektore-multzato baterako edo lanpostu zehatz batzuetarako, betiere, aire-zirkulazioko zerbitzu-unitate baten ardurapean.



Beharrezkotzat jotzen dutenean, eta, betiere, segurtasuna dela-eta, estatu kideek erabaki ahal izango dute unitate-oharpen baten eskumenak adin batetik beherakoak diren lizentziako titularrek baizik ez erabiltzea.

#### *11. artikulua*

##### **Gaikuntzei eusteko eta oharpenak indarrean izateko baldintzak**

1. Unitate-oharpenak 12 hilabeterako izango dira baliagarriak, hasiera batean. Oharpen horien balioa hurrengo 12 hilabeteetarako luzatuko da, betiere, aire-nabigazioko zerbitzuen hornitzaileak honako alderdi hauek frogatzen baditu:

- a) hautagaiak lizentziaren eskumenak gutxieneko ordu-kopuru jakin batean baliatu dituela, unitatearen gaitasun-programan adierazitakoari jarraiki, aurreko 12 hilabeteetan;
- b) Hautagaiaren gaitasuna II. Eranskinaren C zatiaren arabera ebaluatu dela, eta
- c) Hautagaiak medikuaren ziurtagiri baliagarria duela,

Irakaskuntzako zereginetan emandako orduak alde batera utzita, unitate-oharpenaren indarraldiari eusteko eskatzen den gutxieneko lanorduen kopurua gutxitu egin daiteke lanpostuko trebakuntzako irakasleen kasuan, baina beti luzapena eskatu den lanpostuetan ikasle kontrolatzaileak trebatzen eman duen denboraren proportzioan.

2. Unitate-oharpenak iraungitzen direnean, unitate-trebakuntzako plana gainditu beharko da, oharpen horrek berriro balioa izan dezan.

3. Gaikuntza baten edo gaikuntza-oharpen baten titularrak ondoz ondoko lau urtetan gaikuntza horri edo gaikuntza-oharpen horri lotutako aire-zirkulazioko zerbitzurik egin ez badu, eta gaikuntza horretan edo gaikuntza-oharpen horretan unitateko trebakuntza hasi nahi badu, lehenik, ondo egiaztatu beharko du oraindik ere gai dela gaikuntza horren edo gaikuntza-oharpen horren baldintzak betetzeko, eta, gainera, ebaluazio horren ondoriozko trebakuntza-eskakizunak gainditu beharko ditu.

4. Eskatzailearen hizkuntza-gaitasuna modu formalean ebaluatuko da aldian behin, salbu eta interesdunak hizkuntza-gaitasunaren 6. maila gainditu duela frogatzen badu.

Interesdunak hizkuntza-gaitasunaren 4. maila duela frogatu badu, tarte horien iraupenak ez du hiru urtetik gora joko; eta 5. maila duela frogatu badu, berriz, tarteak ez du sei urtetik gora joko.

5. Irakasle-oharpenak 36 hilabeteko denboraldirako izango du balioa, eta aldi hori berritu ahal izango da.

#### *12. artikulua*

##### **Mediku-ziurtagiriak**

1. Mediku-ziurtagiriak gainbegiratze-arloko agintaritzaren nazionalen eskumena duen erakunde mediko batek emango ditu, edo, bestela, gainbegiratze-arloko agintaritzaren nazionalaren baimena jaso duten mediku aztertzaileek egingo dute.

2. Mediku-ziurtagiriak emateko prozedurak bat etorri beharko du Nazioarteko Abiazio Zibilar buruzko Chicagoko Hitzarmenak I. Eranskineko xedapenetan ezarritakoarekin, eta, orobat, bete beharko ditu Eurokontrolek aire-zirkulazioko kontrolatzaileei 3. mailako mediku-ziurtagiria lortzeko finkatu dizkien betekizunak.

3. Mediku-ziurtagiria azterketa medikoa egiten den egunean bertan sartuko da indarrean, eta 24 hilabeteko balioa izango du aire-zirkulazioko kontrolatzaileentzat 40 urte betetzen dituzten arte, eta 12 hilabeteko balioa, berriz, 40 urte bete ondoren. Mediku-ziurtagiria edozein unetan baliogabetu ahal izango da, titularraren osasun-egoera dela-eta hala behar bada.

4. Estatu kideek ondo bermatuko dute prozedura eraginkorrak ezarriko direla berrazterketei edo errekurtsioei dagokienez, eta hor aholkulari mediko independenteek parte hartuko dutela.

5. Estatu kideek behar bezala bermatuko dute prozedurak jarriko direla gaitasun psikofisikoa murriztuta duten kasuetan, eta lizentzia baten titularrari ahalmena emango zaiola enplegu-emaileari jakinarazteko gaitasuna murrizturik duela konturatu dela edo substantzia psikoaktibo edota sendagai baten eraginez mende dagoela, eta litekeena dela horrek galaraztea lizentziari dagozkion zereginak zuzen eta segurtasunez betetzea.

#### *13. artikulua*

##### **Trebakuntza-hornitzaileen ziurtagiria**

1. Aire-zirkulazioko kontrolatzaileak trebatzea, eta, era berean, trebakuntza hori ebaluatzeko prozedura gainbegiratze-arloko agintaritzaren nazionalen ziurtagiriaren mende egongo dira.

2. Ziurtapen-eskakizunak trebakuntzak antolatzeke gaitasun eta egokitasun teknikoetara eta operatiboei buruzkoak izango dira, IV. Eranskinaren I. puntuan ezarritakoari jarraiki.

3. Interesdunak eragiketarako egiteko duen leku nagusia eta, hala dagokionean, egoitza soziala dagoen estatu kideko gainbegiratze-arloko agintaritzaren nazionalen zuzendutako beharko zaizkie ziurtatzeko eskabideak.

Gainbegiratze-arloko agintaritzaren nazionalen ziurtagiriak emango dituzte, hautagaiak

trebakuntzako hornitzaile izateko IV. Eranskinaren I. puntuan ezarritakoa betetzen badute.

Ziurtagiriak eman ahal izango dira trebakuntza-motaren arabera edo aire-nabigazioko beste zerbitzu batzuekin batera, eta, horrela egitekotan, trebakuntza-mota eta aire-nabigazioko zerbitzu-mota zerbitzu-multzo gisa egiaztatu beharko dira.

4. Ziurtagirietan IV. Eranskinaren 2. puntuan ezarritako informazioa zehaztu beharko da.

5. Gainbegiratze-arloko agintari nazionalak ondo gainbegiratuko dute ziurtagiriei dagozkien eskakizunak eta baldintzak betetzen ote diren. Kontrol-arloko agintari nazional bat ohartzen baldin bada ziurtagiri baten titularrak ez dituela eskakizun edo baldintza horiek betetzen, neurri egokiak hartuko ditu, eta, besteak beste, ziurtagiria kentzeko erabakia hartu ahal izango du.

6. Estatu kideek beste estatu kide batean emandako ziurtagiriak aintzatetsiko dituzte.

#### *14. artikulua*

##### **Gaitasun-arauak betetzeko bermeak**

1. Aire-zirkulazioko kontrolatzaileek beren lana segurtasun handiz eta nahitaezkoa den gaitasun-maila izanda beteko dituztela bermatze-aldera, estatu kideek ondo zainduko dute gainbegiratze-arloko agintari nazionalak gainbegiratze-lanak egin ditzaten eta jasotzen duten trebakuntzaren jarraipena egin dezaten.

Beren zereginak arlo hauek hartuko dituzte barne:

- a) lizentziak, gaikuntzak eta oharpenak emango eta kenduko dituzte, betiere, horiei dagokien trebakuntza gainditu eta gainbegiratze-arloko agintari nazionalen erantzukizunen esparruan ebaluazioa egin ondoren;
- b) Gaikuntzak eta oharpenak mantenduko eta gainbegiratuko dituzte, haien eskumenak gainbegiratze-arloko agintari nazionalen erantzukizunaren pean baliatzen badira;
- c) Trebakuntza-hornitzaileen ziurtagiriak emango dituzte;
- d) Trebakuntzako eta unitateko gaitasunerako ikastaroak eta planak onetsiko dituzte;
- e) Gaitasun-maila zehaztuko duten aztertzaileei edo gaitasunen ebaluatzaileei baimena emango diete;
- f) Trebakuntza-sistemaren jarraipena eta kontrola egingo dute;
- g) Errekurtsoak jartzeko eta jakinarazpenak egiteko tresnak ezarriko dituzte.

2. Gainbegiratze-arloko agintari nazionalak informazio egokia eta elkarrekiko laguntza emango dizkiete beste estatu kide batzuetako gainbegiratze-arloko agintariei, hartara, zuzentarau honetako xedapenak behar bezala aplikatuko direla bermatzeko, bereziki, aire-zirkulazioko kontrolatzaileen Erkidego barruko zirkulazio askeari dagokionez.

3. Gainbegiratze-arloko agintari nazionalak ondo bermatuko dute datu-base bat egongo dela, eta hor beren erantzukizunaren pean dauden lizentzia-titular guztiei buruzko informazioa eta titular horien oharpenen irauingitze-data jasoko direla. Xede horretarako, aire-nabigazioko zerbitzuen hornitzaileentzako unitate operatiboek sektoreetan, sektore-multzoetan edo lanpostuetan egindako orduen erregistroak edukiko dituzte, unitatean lan egiten duen lizentzia-titular bakoitzeko, eta informazio hori emango diete gainbegiratze-arloko agintari nazionalari, horiek horrela eskatzen badute.

4. Gainbegiratze-arloko agintari nazionalak baimena emango diete unitateko trebakuntzaren eta etengabeko trebakuntzaren esparruan gaitasunaren aztertzaile edo ebaluatzaile gisa jardun behar duten lizentzia-titularrei. Baimen horrek hiru urteko balioa izango du, eta aldi hori luzatu ahal izango da gero.

5. Gainbegiratze-arloko agintari nazionalak auditoria bat egingo diete aldi behin trebakuntzako hornitzaileei, zuzentarau honetan ezarritako arauak behar bezala betetzen direla bermatze aldera.

Aldian behingo auditoria hori osatzeko, gainbegiratze-arloko agintari nazionalak bisitak egin ahal izango dituzte tokian bertan, zuzentarau hau eta bere arauak betetzen ote diren egiaztatzeko.

6. Gainbegiratze-arloko agintari nazionalak erabaki ahal izango dute 5. paragrafoan aipatu ditugun auditorietako zereginak eta ikuskaritza-lanak osorik edo haien zati bat uztea eta 550/2004 (EE) Erregelamenduaren 3. artikuluan onetsitako erakundeen esku lagatzea.

7. Estatu kideek zuzentarau honen aplikazioari buruzko txosten bat aurkeztuko diote Batzordeari, 2011ko maiatzaren 17a iritsi aurretik, eta handik aurrera, hiru urtean behin egingo dute beste horrenbeste.

#### *15. artikulua*

##### **Aire-zirkulazioko lizentzien elkarrekiko aintzatespena**

1. Zortzigarren artikuluan xedatutakoarekin bat, estatu kide bakoitzak aintzatsi beharko ditu beste estatu kide bateko gainbegiratze-arloko agintariak eman dituzten lizentziak, gaikuntzak, gaikuntza-oharpenak eta horiei lotutako mediku-ziurtagiria ere, betiere, Zuzentarau honen arabera eman badira. Alabaina, estatu kide batek erabaki ahal izango du 21 urteko

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

muga bete duten titularren lizentziak baizik ez onartzea, 5. artikulua 2. paragrafoa a) idatz-zatiari jarraiki.

2. Lizentziaren titular batek lizentzia eman zion estatua ez den beste estatu kide batean erabiltzen baditu lizentziaren eskumenak, orduan, lizentziaren titular horrek eskubidea izango du lizentzia hori aldatzeko eta horri dagozkion eskumenak jasotzen dituen estatu kide horretan emandako lizentzia batekin trukatzeko; eta ez zaio inola ere baldintza gehigarririk ezarriko.

3. Unitate-oharpen bat egiteko, gainbegiratze-arloko agintari nazionalak eskatu beharko diote oharpen horri dagozkion baldintza bereziak bete ditzan, eta unitatea, sektorea edo lanpostua ondo zehaztu beharko du. Unitateko trebakuntza-plana ezartzean, trebakuntzaren hornitzaileak kontuan hartu beharko ditu eskatzaileak dituen gaitasunak eta esperientzia.

4. Gainbegiratze-arloko agintari nazionalak unitatearen trebakuntza-plana onetsi beharko dute, horretarako dituzten arazoak ondo azalduta; plan horretan, bestalde, interesdunarentzat proposatu den trebakuntza egongo da jasota, agiriak aurkezten direnetik gehienez sei asteko eperako izango dena, tartean jar daitezkeen errekurtsioek sortutako atzerapena gorabehera. Beren erabakietan, kontrol-arloko agintari nazionalak ondo zaindu beharko dute bereizkeriarik ezaren eta heinekotasunaren printzipioak beteko direla.

### *16. artikulua*

#### **Aurrerapen teknikora edo zientifikora egokitzea**

Aurrerapen teknika edo zientifikoa ikusita, 17. artikulua 2. paragrafoan adierazitako prozedurari jarraiki, Batzordeak aldatu ahal izango ditu 6. artikuluko gaikuntzak, 7. artikuluko gaikuntza-oharpenak, eta 12. artikulua 3. paragrafoan eta eranskinetan jasota dauden ziurtagiri medikuei buruzko xedapenak.

### *17. artikulua*

#### **Komitea**

1. Europako Batzordeak zero bakarreko komitearen laguntza izango du; komite hori 549/2004 (EE) Erregelamenduaren 5. artikuluari jarraiki sortu da.

2. Honako paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedaturikoa betez.

1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan jasotako epea hilabetekoa izango da.

3. Komiteak bere barne-araudia onartuko du.

### *18. artikulua*

#### **Zehapenak**

Estatu kideek zehaztu beharko dute Zuzentarau honen arabera ezarritako xedapen nazionalak urratuz gero aplikatu behar den zehapenen erregimena, eta, era berean, behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte xedapen horiek bete daitezzen. Ezarritako zehapenek eraginkorrak, neurrizkoak eta disuasiozkoak izan beharko dute. Estatu kideek xedapen horien berri jakinarazi beharko diote Batzordeari 2008ko maiatzaren 17a iritsi aurretik; eta, era berean, horren ondoren aldaketaren bat egiten badute, ahalik eta arinen eman beharko diote aditzera.

### *19. artikulua*

#### **Neurri iragankorrak**

Estatu kideek 2008ko maiatzaren 17a baino lehenago emandako aire-zirkulazioko kontrolatzaileen lizentzien titularrei ez zaie aplikatuko 5. artikulua 2. paragrafoa a) eta b) idatz-zatietan adierazitakoa.

### *20. artikulua*

#### **Barne-antolamenduan sartzea**

Estatu kideek behar diren lege-, arau- eta administrazio-xedapenak jarriko dituzte indarrean, zuzentarau honetan ezarrita dagoena 2008ko maiatzaren 17a iritsi aurretik betetzeko. Salbuespena izango da 8. artikulua, hori 2010eko maiatzaren 17an sartuko baita indarrean. Estatu kideek berehala jakinarazi beharko diote Batzordeari xedapen horien testua.

Estatu kideek xedapen horiek ematen dituztenean, Zuzentarau honen aipamena sartu beharko dute xedapenotan, edo, bestela, aipamen horrekin batera azalduko dira argitalpen ofizialetan. Estatu kideek aipatutako erreferentziaren modalitateak ezarriko dituzte.

### *21. artikulua*

#### **Indarrean sartzea**

*Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu, eta hogeit egun igaro ondoren jarriko da indarrean Zuzentarau hau.

### *22. artikulua*

#### **Jasotzaileak**

Estatu kideak dira Zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon, 2006ko apirilaren 5ean.

*Europako Parlamentuaren Kontseiluaren*  
*izenean* *izenean*  
*Presidentea,* *Presidentea,*  
J. BORRELL FONTELLES H. WINKLER

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*